ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2023ko martxoaren 17a, ostirala • 32 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

# VITORIA-GASTEIZKO UDALA

## GIZA BALIABIDEEN SAILA

**Vitoria-Gasteizko Udaleko hainbat sailetako lanpostu-zerrenda aldatzea onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko martxoaren 3an egindako bilkuran. Aldaketa hori honetan datza: lanpostu-zerrendan programako 54 dotazio integratzea, 9 dotazio amortizatzea eta 1 dotazio sortzea**

Hasierako onespena eman zien Vitoria-Gasteizko udalbatzak, 2022ko abenduaren 23an egindako aparteko osoko bilkuran, 2023ko ekitaldiko udal aurrekontu orokorrei, eta argitara eman zitezela agindu zuen, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan araututakoaren ildotik. Hasierako onespena emateko erabakiaren kontra alegaziorik aurkeztu ez zenez, 2023ko otsailaren 3an behin betiko onetsitzat jo ziren Vitoria-Gasteizko Udalaren 2023ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak.

Aurrekontuarekin batera doazen dokumentuen artean aurrekontu-plantillaren dokumentua dago, eranskin gisa; dotazioen kopurua zehazten da bertan sailkapen-taldeen, eskalen, azpieskalen eta plaza-moten arabera ordenatuta. Plantilla horren helburua da bertan agertzen diren plaza guztiek aurrekontu-zuzkidura izatea ekitaldian.

Antolakuntza Zerbitzuaren proposamen-txostenari jarraituz, programako berrogeita hamalau dotazio gehitu dira lanpostu-zerrendan. Integratutako berrogeita hamalau dotazioetatik berrogeita bost aurretik zeuden programako plazen ezaugarri berekin gehitu dira, eta haietako bosti derrigortasun-data jarri zaie, ordura arte ez baitzuten. Gainerako bederatzi dotazioei ezaugarri berriak gehitu zaizkie eta lanpostu-zerrendan agertzen dira, dagoeneko zituztenekin batera (lanpostu kode berria, betekizun berriak edo hizkuntza eskakizunaren derrigortasuna data).

Programako plazak betetzen dituzten pertsonek lanpostu-zerrendako dotazio berriak beteko dituzte.

Gainera, lanpostu-zerrendako bederatzi dotazio amortizatu dira lanpostu horiek zaharkituta daudelako edo ez direlako behar erakundean, eta lanpostu berri bat sortu da lanpostu-zerrendan. Aipatutako mugimendu guztiak udal aurrekontuarekin batera aurkeztutako 2023ko plantillan onartu ziren.

Programako plazak lanpostu-zerrendan sartzeak, amortizazioek eta lanpostu berri bat sortzeak ez dakarte kostua handitzea, erantsitako txosten ekonomikoaren arabera.

Ikusita proposatutako hitzarmenaren legezkotasunari buruzko txosten juridikoa, udal sailetako zuzendaritzak informatuta, kontu-hartzailetzaren organoaren titularrak aldeko txostena emanda eta aldaketa sindikatu-ordezkaritzarekin negoziatu ondoren 2023ko otsailaren 9ko eta 16ko bileretan, egokitzat jotzen da egungo lanpostu-zerrendan egin beharreko aldaketak proposatzea, zeinak erabaki proposamen honen eranskinean jasota baitaude.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailak txostena eman du hizkuntza eskakizunen eta derrigortasun-daten inguruan.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateratua onetsi zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 74. artikuluan xedatzen duenaren arabera, herri administrazioek lanpostu-zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa-tresnak erabilita egituratuko dute

beren antolamendua. Zerrenda horietan, gutxienez, honako hauek jaso behar dira: lanpostuen izena, lanbide-sailkapeneko taldeak, hala dagokionean, atxikita dituzten kidegoak edo eskalak, lanpostuak betetzeko sistemak eta ordainsari osagarriak.

Bestalde, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 40.5 artikuluak honela dio:

5. Administrazioak autoantolatzeko gaitasuna duenez, bere esku izango du, alde batetik, lanpostuak sortu eta kentzea, eta, bestetik, lanpostuen funtzioak eta zereginak aldatzea. Lanpostu edo dotazioren bati oinarrizko ezaugarriak funtsean aldatuz gero, hura amortizatu eta beste bat sortu beharko da, edo, hala badagokio, izan baden beste baten barruan sartu.

Era berean, lege horretako 191.1.c artikuluak honako hau esaten du:

"...c) Derrigortasun-printzipioa. Enplegu publikoaren oinarrizko araudian sartutako gaiak negoziatuko dituzte beti Administrazio Publikoek.

12. Lanpostu-zerrendak edo tresna baliokideak".

Lege horren 45.3 artikuluaren arabera, lanpostu-zerrendaren aldaketak lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratu behar dira.

Hori dela eta,

Giza Baliabideen Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki-proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena. Udaleko hainbat sailetako lanpostu-zerrenda aldatzea, alegia, programako 54 dotazio lanpostu-zerrendan integratzea, lanpostu-zerrendan 9 dotazio amortizatzea eta lanpostu-zerrendan 1 dotazio sortzea, erabaki honen eranskinean jasotako baldintzekin.

Bigarrena. Lanpostu-zerrendak aldatzeko beharrezkoak diren dosier guztiak tramitatzeko agintzea Giza Baliabideen Sailari.

Hirugarrena. Aldaketa horrek berekin dakar 54 programetako bitarteko funtzionarioen izendapenak bukatzea, baita horiei atxikitako dotazioenak ere, eta bitarteko funtzionario izendatzea lanpostu-zerrendako dotazioetan.

Laugarrena. ALHAOean argitaratzea lanpostu-zerrenda aldatzeko erabaki hau.

Herritar oro jakinaren gainean egon dadin ematen da argitara. Orobat jakinarazten da erabakiak administrazio-bidea agortzen duela, eta haren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOean argitaratzen den egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertzeko errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Orokorrari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin lotuta aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 22an

*Giza Baliabideen Saileko zinegotzi ordezkaria*
*IÑAKI GURTUBAI ARTETXE*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

## ERANSKINA

1. Programako 54 dotazio lanpostu-zerrendan integratzea.

1.1. 45 dotaziok integratuko diren programa-plazen ezaugarriei eusten diete. ID berria izango dute, eta bosti derrigortasun-data ezarriko zaie hizkuntza-eskakizunerako, taulan adierazten den moduan.

| Lanpostuaren kodea | Lanpostuaren deskribapena | Dedikazioaren ehunekoa | Matrikula | Taldea | Eskalak | Destino osagarria | Berariazko osagarria | 2. unitatea | Hizkuntza-eskakizuna | Derrigortasun data | Guztira | Derrigortasun data berria |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5047 | Aukera berdintasuneko agentea | 100 | 10069 | A1 | 2110A | 24 | 70 | 016001 | 3 | 3/8/20 | 1 | |
| 5003 | Arkitektoa | 100 | 9865 | A1 | 2110A | 24 | 70 | 022401 | 3 | 0:00:00 | 1 | |
| 7023 | Informazioaren kudeaketako teknikari espezialista | 100 | 9835 | C1 | 2100 | 18 | 175 | 033010 | 2 | 0:00:00 | 1 | |
| 8005 | Udaltzaingoko ofiziala | 113 | 10170 | C1 | 5001C | 22 | 515 | 35031 | 2 | 0:00:00 | 1 | |
| 8011 | Lehen agentea | 105 | 10169 | C1 | 6004C | 19 | 505 | 035010 | 2 | 0:00:00 | 1 | |
| 2005 | Administraria | 100 | 9314 | C1 | 1200 | 19 | 176 | 091101 | 2 | 25/6/19 | 1 | |
| 5026 | Informatika aplikazioetarako goi-mailako teknikari | 100 | 9828 | A1 | 2110A | 24 | 70 | 101101 | 3 | 0:00:00 | 1 | 3/3/23 |
| 1302 | Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko arduraduna | 100 | 11702 | A1,A2 | 2110A<br>2120B<br>2230A<br>2230B | 23 | 91 | 114501 | 3 | 0:00:00 | 1 | |
| 5023 | Geriatriako medikua | 115 | 2535 | A1 | 2110A | 24 | 75 | 113310 | 3 | 0:00:00 | 1 | |
| 6034 | Terapeuta okupazionala erdi-mailako teknikaria | 100 | 9168 | A2 | 2120B | 23 | 110 | 113310 | 3 | 0:00:00 | 1 | 3/3/23 |
| 7018 | Erizaintzako zaintza osagarrien teknikaria | 100 | 9117 | C2 | 2100 | 15 | 210 | 113310 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 9118 | C2 | 2100 | 15 | 210 | 113310 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 9119 | C2 | 2100 | 15 | 210 | 113310 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 9138 | C2 | 2100 | 15 | 210 | 113310 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 9139 | C2 | 2100 | 15 | 210 | 113310 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 8415 | C2 | 2100 | 15 | 210 | 113310 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 9140 | C2 | 2100 | 15 | 210 | 113310 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 9844 | C2 | 2100 | 15 | 210 | 113310 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 9859 | C2 | 2100 | 15 | 210 | 113310 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| 1037 | Kontu hartzailetza teknikaria | 100 | 10152 | A1 | 2110A | 24 | 70 | 131001 | 3 | 0:00:00 | 1 | |
| 1820 | Aparkalekuetako jagolea | 100 | 9822 | C2 | 0000 | 12 | 235 | 152102 | 2 | 0:00:00 | 1 | |
| 2005 | Administraria | 100 | 9364 | C1 | 1200 | 19 | 176 | 152002 | 2 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 11725 | C1 | 1200 | 19 | 176 | 151401 | 2 | 0:00:00 | 1 | 3/3/23 |
| | | | 11726 | C1 | 1200 | 19 | 176 | 151401 | 2 | 0:00:00 | 1 | 3/3/23 |
| 1904 | Garbitzailea 1 | 100 | 10162 | C2 | 0000 | 14 | 225 | 163001 | 2 | 28/9/20 | 1 | |
| 1906 | Garbitzailea 2 | 53,33 | 10087 | E | 2200 | 11 | 250 | 163001 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 8677 | E | 2200 | 11 | 250 | 163001 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | 66,66 | 10086 | E | 2200 | 11 | 250 | 163001 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 10092 | E | 2200 | 11 | 250 | 163001 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 10093 | E | 2200 | 11 | 250 | 163001 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 10094 | E | 2200 | 11 | 250 | 163001 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 10096 | E | 2200 | 11 | 250 | 163001 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | 66,67 | 9083 | E | 2200 | 11 | 250 | 163001 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 9657 | E | 2200 | 11 | 250 | 163001 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 9658 | E | 2200 | 11 | 250 | 163001 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | 100 | 10014 | E | 2200 | 11 | 250 | 163001 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 10369 | E | 2200 | 11 | 250 | 163001 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 10411 | E | 2200 | 11 | 250 | 163001 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 10448 | E | 2200 | 11 | 250 | 163001 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 10799 | E | 2200 | 11 | 250 | 163001 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| | | | 9222 | E | 2200 | 11 | 250 | 163001 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| 6008 | Gizarte etxeko koordinatzailea | 115 | 9836 | A1,A2 | 2110A<br>2120B<br>2230A<br>2230B | 26 | 40 | 182001 | 3 | 4/2/20 | 1 | |
| 1477 | Zabortegiko ikuskatzaile analista | 100 | 9879 | C1 | 2130C | 21 | 135 | 243003 | 2 | 0:00:00 | 1 | |
| 1802 | Albaitaritzako laguntzailea | 115 | 9916 | E | 2200 | 12 | 240 | 243001 | 1 | 0:00:00 | 1 | |
| 5013 | Albaitaritzako goi-mailako teknikaria | 50 | 11283 | A1 | 2110A | 24 | 70 | 243001 | 3 | 0:00:00 | 1 | 3/3/23 |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

1.2. Gainerakoetan, hau da, 9 dotaziotan, langileek eginkizunei eusten diete, baina programan jasotako ezaugarriei beste batzuk gehitu zaizkie, eta lanpostu-zerrendan jaso dira (lanpostu kode berria, betekizun berriak edo hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun data).

| Programako lanpostu kodea | Lanpostuaren deskribapena | Dotazioa | Dedikazioaren ehunekoa | Hizkuntza-eskakizuna | Derrigortasun data | Taldea | Destino osagarria | Berariazko osagarria | Titulazioak | Eskalak | Unitatea | Lanpostu kodea lanpostu-zerrenda | Izen berria | Titulazioak | Betekizun osagarriak | Derrigortasun-data berria |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5036 | Administrazio bereziko goi mailako teknikaria (ABT) | 7667 | 100 | 3 | 0/1/00 | A1 | 24 | 70 | G00 600 | 2110A | 021401 | 5003 | Arkitektoa | D01 602 | | |
| 6074 | Energiako goi-mailako ingeniaria | 9873 | 100 | 3 | 0/1/00 | A1 | 24 | 70 | D23 D35 612 | 2110A | 022302 | 6074 | Energiako goi-mailako ingeniaria | D23 612 + gaikuntza masterra | ingelesa B2 | 3/3/23 |
| 6003 | Ingeniari teknikoa | 9864 | 100 | 3 | 0/1/00 | A2 | 23 | 110 | D00 503 | 2120B | 022302 | 6079 | Energiako ingeniari teknikoa | D35 512 | ingelesa B2 | |
| 1457 | Gizarteratze langilea | 8381 | 100 | 2 | 0/1/00 | C1 | 18 | 175 | | 2230C | 111501 | 1457 | Gizarteratze langilea | Z05 | | |
| 1457 | Gizarteratze langilea | 8382 | 100 | 2 | 0/1/00 | C1 | 18 | 175 | | 2230C | 111501 | 1457 | Gizarteratze langilea | Z05 | | |
| 703 | Zerbitzu osagarrien taldeko koordinatzailea | 11426 | 110 | 2 | 1/4/22 | C1 | 18 | 175 | Z300 | 2230C | 182003 | 703 | Zerbitzu osagarrien taldeko koordinatzailea | Z300 | | |
| 703 | Zerbitzu osagarrien taldeko koordinatzailea | 11427 | 110 | 2 | 1/4/22 | C1 | 18 | 175 | Z300 | 2230C | 182003 | 703 | Zerbitzu osagarrien taldeko koordinatzailea | Z300 | | |
| 232 | Zonen zerbitzuko burua | 5604 | 100 | 3 | 0/1/00 | A1,A2 | 26 | 40 | 500 600 | 2110A 2120B | 244004 | 232 | Zonen zerbitzuko burua | G00 500 600 | | 3/3/23 |
| 249 | Zerbitzu orokorren burua | 4334 | 100 | 3 | 0/1/00 | A1,A2 | 26 | 40 | 500 600 | 2110A 2120B | 244006 | 249 | Zerbitzu orokorren burua | G00 500 600 | | 3/3/23 |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

2. Lanpostu huts amortizatzea. Dotazio hauei dagozkie.

| TALDEA | ESKALA | LAKO | LANPOSTUAREN DESKRIBAPENA | MATRIKULA | LANALDIAREN EHUNEKOA | DESTINO OSAGARRIA | BERARIAZKO OSAGARRIA | UNITATEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| C1 | 2130C | 7005 | Ataleko arduraduna | 1987 | % 100 | 22 | 95 | 11601 |
| C1 | 2000 | 6040 | Erdi mailako kirol koordinatzailea | 1907 | % 100 | 22 | 115 | 91502 |
| C1 | 2130C | 1487 | Liburutegiko artxiboko laguntzailea | 1291 | % 100 | 19 | 166 | 91502 |
| C1 | 2130C<br>2241C | 1422 | Kalitateko espezialista | 86 | % 100 | 21 | 135 | 91502 |
| C1 | 2230C | 7003 | Erreprografiako burua | 7734 | % 100 | 22 | 56 | 91502 |
| C1 | 2100 | 7013 | Delineatzaile proiektugilea | 291 | % 100 | 19 | 166 | 91502 |
| C1 | 2230C | 1403 | Jard. soziokulturaletako E.T. | 1995 | % 100 | 22 | 115 | 115001 |
| C2 | 0 | 606 | Zerbitzu osagarrien taldeko burua | 1509 | % 100 | 15 | 212 | 182003 |
| A1 | 2110A | 5037 | Goi-mailako teknikaria (ABT) | 1997 | % 100 | 24 | 70 | 91502 |

3. Goi-mailako teknikari lanpostu bat sortzea, ezaugarri hauekin.

| LANPOSTUAREN DESKRIBAPENA | PLAZA MOTA | DEDIKAZIOAREN EHUNEKOA | HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA | DERRIGORTASUN DATA | TALDEA | DESTINO OSAGARRIA | BERARIAZKO OSAGARRIA | SARTZEKO TITULAZIOAK | ESKALAK | UNITATEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ingurumen-osasuneko goi-mailako teknikaria | R | 100 | 3 | 00/00/0000 | A1 | 24 | 70 | B12 C03 C14 B02 B01 B04 B05 | 2110A | 243003 |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2023.03.17 06:27:17 Z